BEHATUZ
GIZARTE ZERBITZUEN
EUSKAL BEHATOKIA

GZ GIZARTERATUZ
Analisia|Ikerketak




DISKRIMINAZIOAREN INGURUKO PERTZEPTZIOAK ETA JARRERAK EUSKADIN

Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrerei buruzko inkesta (EPADE) galdeketa kuantitaboa da, eta Euskadiko biztanleek eremu desberdinetan aniztasunarekiko duten jarrera eta irekitasuna aztertzea du helburu, bai eta lurraldean dagoen diskriminazioaren gizarte-pertzepzioa neurtzea ere.

Aniztasunarekiko jarrera



Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrerei buruzko inkestaren azken emaitzen arabera, **biztanle gehienek adierazi dute nahiago dutela gizarte anitz batean bizi**, non jatorri, kultura, erlijio eta sexu-orientazio eta -identitate desberdinetako pertsonak bizi diren, zentzu horietan guztietan homogeneoa den gizarte batean




Bizitzeko aukeratutako gizarte

- Gizarte anitz batean, jatorri, kultura, sinesmen, sexu-orientazio eta -identitate... desberdineko pertsonekin
- Jende gehiena jatorri, kultura, sinesme, sexu-orientazio eta -identitate... berdinekoa den gizarte batean
- Ed/Ee

Bizilagunekiko bizikidetzari dagokionez, euskal biztanleria, **oso har, eroso sentitzen da gizarte-talde gehienekin**. Hala ere, erosotasun hori zertxobait moderatuagoa da jatorri atzerritarreko edo gaixotasun mentalen bat duten pertsonekin auzotasuna partekatu nahi denean, eta nabarmen jaisten da ijitoen


Talde minoritario edo diskriminazioa jasan dezaketenekin elkarbizitzarako erosotasuna



Hautemandako diskriminazioa



Euskal gizartearen erdiak, gutxi gorabehera, **gizarte-talde jakin batzuekiko diskriminazioa arazo oso edo nahiko larritzat hartzen du**. Emaitza horiek generoaren arabera aztertzean, alde estatistikoki esanguratsuak ikusten dira: emakumeek gizonek baino joera handiagoa dute diskriminazioa oso arazo garrantzitsutzat jotzeko (%13,2 eta %7,4, hurrenez hurren).




Diskriminazioaren pertzepzioa arazo gisa

- Oso edo nahiko garrantzitsua
- Garrantzitsu samarra
- Garrantzi gutxi edo batere gabeko
- Ed/Ee

Tratu desberdina hautematen den eremuei dagokienez, **etxebizitzarako eta erantzukizun-karguetarako sarbidea dira seinalatuenak**: hamar pertsonatik zazpik uste dute bereizketak egiten direla pertsonaren arabera. Halaber, %60k baino gehiagok ezberdintasunak identifikatzen ditu enplegua lortzean eta lege-eremuan, eta %52,3k diskriminazioa hautematen du gizarte-laguntzak edo -prestazioak jasotzean. Desberdintasun hori zerbitzu publikoetan hautematen da gutxien, %37,2k

Hautemandako tratu-desberdintasuna, eremuen arabera



Aitortutako diskriminazioa




Inkestatutako biztanleek %16,6k adierazi du zuzeneko diskriminazioa jasan duela azken urtean, eta intzidentzia askoz ere handiagoa dela emakumeen artean (%23,3) gizonen artean baino (%9,4).

Kasu horietako gehienak espazio publikoetan (%36,6) eta lan-eremuan geratu ziren, bai lantokian (%21,6), bai lana bilatzeko garaian (%8,5).

Bestalde, **%26,7k adierazi du diskriminazio-egoeren bat ikusi edo entzun duela**, batez ere, etorkina izateagatik, jatorri etnikoagatik, larruazalaren kolorearengatik, emakumea izateagatik edo sexu-orientazioagatik.

Azken 12 hilabeteetan ikusitako diskriminazioa, ezaugarrien arabera (baiezko erantzun guztien %)



Aniztasunarekiko irekitasunaren indizea



Indize honek zifra bakar batean laburbiltzen du euskal gizarteak aniztasunarekiko duen jarrera orokorra, sei onarpen-dimentsio kontuan hartuta: familiakoa, materiala, instituzionala, autoesleitua, komunitarioa eta kulturala.

Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrerei buruzko inkestaren 2024ko edizioan, **aniztasunarekiko irekitasun-indizea 72,78ko puntuazioa lortu du, 100eko maximotik,** eta hori balorazio aipagarritzat jo daiteke.

Azkenik, desberdintasun esanguratsuak identifikatu dira euskal biztanleriaren portaeran, eta horrek laguntzen du, neurri batean behintzat, aniztasunaren aurreko jarrerak azaltzen.

Honako aldagai hauek ematen dituzte hobekien alde horiek: adinarekin –gazteak dira irekienak–, habitat motarekin –onarpen-maila handienak dituzte udalerri txiki eta ertainetan–, hezkuntza-mailarekin –handiagoa da goi-mailako prestakuntza akademikoa dutenen artean– eta estatus sozioekonomikoarekin –gizarte-klasearen maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da aniztasunarekiko irekitasuna–.

Aniztasunarekiko irekitasun-mailan alde esanguratsuak dituzten aldagaiak

Aniztasuna onartzeko erresistentzia handienak dituzten pertsonen profila	Aldagaia	Aniztasuna gehien onartzen duten pertsonen profila
65 urte edo gehiago	Adina	18 eta 64 urte artean
Bizkaia	Lurraldea	Araba eta Gipuzkoa
Udalerri handiak eta hiriburuak	Habitat	Udalerri txiki eta ertainak
Lehen mailakoak	Ikasketak	Bigarren mailakoak eta unibertsitatekoak
Katolikoa	Erlijioa	Agnostikoa eta ateoa
Zentrokoa eta eskuinekoa	Ideologia	Ezkerrekoa
Euskalduna eta/edo espainiarra	Identitate-sentimendua	Ez euskal herritarra, ez espainiarra
2.800€ eta 5.000€ artean	Hileko diru-sarrerak	5.000€tik gora
Pozik edo interesik ez gaian	Gogobetetze ekonomikoa	Ez oso pozik
Espainian jaioak	Jatorria	Atzerritar jatorrikoak
Erretiratuak eta etxeko zaintzaren arduradunak	Jarduera	Ikasleak
Estatus baxua	Klase soziala	Estatus altua eta ertaina

Diskriminazioaren inguruko pertzeptzioak eta jarrerak Euskadin

Iturria: Shershneva, J. (koord.), et al. **EPADE 2024. Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrerei buruzko inkesta**. Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia, Bilbo, 2025, 166 or.

Dokumenturako sarbidea

